

## Antonio Maria Labaien. Euskal kulturaren soka muturrean

---

Harreman handia izan nuen hil berri den Antonio Maria Labayenekin. Eguzero etortzen zitzaidan etxera eta askotan laguntzen zidan nere bidaiatxoetan, etnografia lanetan. Nere jarraitzailea zen, debilidadea zuen nerekin, oso langilea nintzela esaten zuen.


Euskal kulturako pertsonaia garrantzitsua izan zen bizitza osoan. Antzerki alorrean egindako lanarengatik eman zen ezagutzera. «California cu-cu», «Gal-tzaundi», «Domenjon de Andia»... Zerrenda luzea. Prosaz ere idatzi zuen. Kultur mailako pertsonaia handiak ezagutu zituen eta lagunak zituen. Saran herbesteratua bizi zenean adiskidetasun handia egin zuen Jose Migel Barandiaranekin. Lehendik ere *Lizardi* eta *Orixerekin* ere intimoa zen. *Aitzolekin* ere bazuen harremana, baina hura gerran hil zuten. Mokoroatarrekin asko, Manuel Lekuonarekin...

Tolosako zinegotzia eta gero alkatea izan zen 1933-36 garaian, gerra zibila iritsi arte.

Alkate ona izan zen, maitea, euskararen alde asko egin zuena: bandoak bi hizkuntzetan atera, San Juanetako programak... Politikoa baino euskaltzaleagoa zen. Nazionalista zen, baina hizkuntza eta literatura gehiago maite zituen. Burua espeziala zuen. Euskaltzaindiako partaidea izan zen. Bere gorabeherak izan zituen batua zela eta ez zela, hasiera haietan, baina azken urteotan oso ondo bat eginda zegoen eta Euskaltzaindian asko maite zuten Antonio. Konbersazio handiko gizona zen, zorrotza.

Ekintza gizona gisa ez dugu ahaztu behar Antoñito (hala deitzen genion lagunok). Bibiano Larramendi medikua, Manolo Ugarte, Federico Zabala, Jose Leon Iriarte, Josetxo Uria, Asentxio Ondarzabal, Juanito Ugarte, bera eta ni tartean ginela sortu genuen Laskorain Ikastola duela hogeitazazpi urte. Antonio Maria izan zen lehen guraso batzordeko lehendakaria. Santa Luzian lur batzuk begiratzen aritu ginen Labaien, Zabala eta ni. Nagusia Iturria zen, Ladislao Zabalaren lehengusua, oso nazionalista eta oso aberatsa. Berarengana joan ginen Elizondora, ondo hartu gintuen, baina gure posibilitateak garai hartan, frankismo garaian, txikiak ziren.

Hori baino lehen *Lizardiren* omenaldia antolatu genuen 1961ean. Akto akademikoa izan zen eta *Orixek* parte hartu zuen. Hori maiatzean izan zen eta urte hartan bertan, abuztuan, Orixe hil zen. Txistularien alardea izan zen, bazkaria Zeru Haundin eta Euskal Herri osoko dantzariak Zezen plazan. Bete egin genuen. Propaganda partitzen aritu ginen, Antonio tartean. Handik bi urtetara Orixeren omenaldia egin genuen, baina ez ziguten baimena eman azken ordurarte. Gero sortu zen Lizardi elkarte eta ikastola. Euskal kulturaren ekitaldi guztietan Antonio Maria Labaien beti soka muturrean ibili zen.



Antonio María Labaien. Euskal kulturaren soka muturrean / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Galtzaundi. Tolosaldeko Herri Aldizkaria*. - Tolosa : Galtzaundi Euskara Taldea. - 37. zenb. (1994 abend.), 29 orr.